

D73

39

VI-garren PAUL

HUMANAE VITAE

jaiotzen neurtzea dala-ta

GIZA-BIZITZA

VI-garren PAUL

HUMANAE VITAE

jaiotzen neurtzea dala-ta

GIZA-BIZITZA

n

S. Anton'go Katekesia
Euskal - argitalpenak

Itzulpen- billabideak:
Etxebarria'tar Juan Angel'ek

NIHIL OBSTAT
Lic. Juan Arriola, S. I.
Censor Ecco.

IMPRIMATUR
PABLO, Obispo de Bilbao
Bilbao, 22 de octubre de 1968

Depósito legal: BI 2.111 - 1968

**AITA SANTU VI-garren PAULO'k
JAIOTZEN NEURTZEAZ
EGIÑIKO IDAZKIA**

Anai agurgarri Patriarka, Gongotzain, Gotzain eta edo-
nungo Ordezkarri, Erroma'ko alkiak batera bakean dira-
nai. Apaiz eta lurbira katolikoaren siñistedunai ta gogo
oneko gizonai.

ANAI AGURGARRI TA SEME MAITEAK

1.—Lankide azke izan ta Jainko egillearekiko erantzukizun daben senar-emazteentzako, bizitza-emanaraztea beti izan da poz andien iturria. Batzutan, baiña, neke ta larritasun andiakaz.

Olako betebearrak beti sortu ditu buruauste andiak ezkonduen barruan. Alan be, gaurko gizarte-aldatzeaz alako aldaketak egin dira ta auzi barriak sortu ditue Eleizan. Ta beronek ezin itxi alde batera, gizonen bizitza ta zorionagaz ain lotua dan gauza da-ta.

2.—Egindako aldaketak, andiak eta askotarikoak dira, benetan. Lenen ta bein, erri-azte arin-ariña bat. Askok eta askok bildur dabe munduko erri-batza, jasan al dauan baiño ariñago aziko ote dan. Ortik gero ta larrikuntza andiagoa, azi-berri diran ainbat sendi ta errientzat. Ta agintariak arrisku oni neurri zeatzak artu nai dautsoez. Gaiñera, lan ta bizi-erak, ekonomi ta aziketa-arloan gorago doazan bearrak, sarritan eziña egiten dabe gaur seme-alaba askori begiratzea.

Bestalde, emakumearen nortasuna ta bere gizarteango lekua beste era batera asi dira artzen. Bardin, ezkontzan

ezkonduen maitasunari zelako balioa emon bear yakon, maitasun oneri begiratuta ezkonduen egintzak zelako esangura daben, orra pentsatzeko era barriak sortzen.

Azkenik, batez be, Izadiaren indarrak menperatu eta adimenez lotuz gizonak aurrerapen arrigarriak egin dauz. Ta, jakiña, indar ta esku ori bere izate osoan erabili gura dauz: gorputzean, gogo-bizitzan, gizartekoan eta bizitza emotean zuzentzen dabezan legeetan ere bai.

3.—Egokera barri onek itaun barriak dakaz. Gaurko bizitzaren zertzelada ta inguruneak gogoan euki ta senar-emazteen arteko bakerako ta alkar-zorionerako ezkontza-egintzak daben garrantzia dirala-ta, ez ete da egoki izango orainarteko lege etikoak aztertu, batez ere ikusten ba'da eurok ezin gorde leitekezala neke andi barik eta askotan itzalezko buru-ukapen barik?

Are geiago: osoarena rekiko esaten yakona onetara zabaldu ezkeror, ezin ete da onartu sortze urriago ta zentzudunago baten amets orrek gauzeppen uts ori jaiotzen legezko neurketa zentzuduna biurtu leikela? Au da, ezin ete da onartu sortu-bear ori ezkonduen bizitza guztizkoaz lotuta dala ta ez egin-tza bakar bakoitzagaz? Era berean, gaurko gizonak dauan erantzukizun senagaitik ez ete da ordua jaoitzak neurtzea gorputz-aldien araura barik, adimen eta naimenaren araura jartzeko?

4.—Olako gai eta auziak azterpen barri ta sakona eskatzen eutsoen Eleizaren Irakaslaritzari. Ezkontzaren

moral-irakastearen oiñarriak, izatezko legean datzazanak eta Jainko-agerpenagaz argitu ta aberastuak diranak.

Ez da eliztarrik egongo izatezko lege morala adieraztea Eleizaren Irakaslaritzari dagokiona ukatuko daunik. Gure aurrekoak askotan esana (1), gura ta ezkoa da, Jesukristo'k done Pedro ta bere Bidaliai beraren jainkozko agintzea emotean ta beraren aginduak leku guztietara zabaltzera bialtzean (2), Moral lege guztiaren gordetzaille ta adierazle egin zituan. Ebanjeli-legearenak ez ezik, izatezkoarenak ere bai. Berau Jainkoaren naiaren azalpena da ta bere betetzea ezinbestezkoa da zerurako (3).

Bere egin-bear au dala-ta, Eleizak beti emon dau, eta gaurko denporan are geiago, irakaspén jator bat, bai ezkontzaren izateaz, bai ezkontza-eskubideen erabilteaz eta senar-emazteen alkarrekiko betebearretzaz (4).

5.—Betebear ori zala-ta, gure aurreko ospetsuaren, XXIII-garren Jon'en, Ikasketa-batzarra sendotu ta zabalgotu genduan, arek 1963-garren urteko epaillean sortua. Batzoki ori gai oni buruzko ikasketan jakitun diran askok eta senar-emazte bikoteak osotua zan. Ta auxe bere zeregiña: ezkontza-bizitzari buruzko eritxi ta gai barriak jaso,

(1) Pio XI: Casti connubii.

(2) Math.: 28, 18-19.

(3) Math.: 7, 21.

(4) Codex Juris Canonici, can. 1.067.

batez bere jaiotza-neurtzeazkoak, eta albistaritza egokia egin, Irakaslaritzak gero eliztarren itxaroari ta munduko agiriko iritxiketari erantzuna emon al egian (5).

Jakitun onein lanak, eta baita gure anai Artzain askoren eritxi ta aolkuak be, beren oldez bialdurikoak edo geuk eskaturikoak, arrazoiketa ugarí onen alderdiak obeto ezagutzeko lagundu dauskue. Orregaitik euroi guztioi gure esker on beroena.

6.—Biltzar arek artutako erabakiak ezin genduzan azken itzatzat artu eta auzi larri au geuk aztertu dogu. Batetik, biltzarraren barruan guztiak batera erabat ez egozalako, moral-arauetzaz, eta bestetik, baitik bat, bestelako erabaki-asmoak sortuak ziralako, beti ta sendoki Eleizak irakatsi dauan zillegizti-irakaspenari jarkitzen yakozanak. Beraz, aurkeztu yakuzan idazkiak arretaz araturik eta astiro ausnartu ta otoiztu ta gero, orain Kristo'gandiko aginduaren ariora, auzi gorri onei gure erantzuna emon nai dautsegu.

7.—Jaiotzarekiko auzia, beste edozein giza arazo bezela, bioloji, sikoloji, erriketa edo gizarte-ikuspegitik baiño gorago begiratu bear da, gizonaren ikuste guztizko baiten eta bere lurreko dei ta zerurakoaren argitan. Jaiotzak neurtzeko asmatutako bideak zuzentzat emoteko alegin orretan, askok ezkonduen maitasuna ta aitatasun asmo-

tsua artu dabez agotan. Ori dala-ta, ezkontzako bizitzaren egi bi andi oneik ondo zeaztu bear dira. Orretarako Gaudium et Spes deritxon gotzai-idazkian Batikano Bigarren batzarrak ain ederki azaldu dauanera jotzen dogu.

8.—Ezkonduen maitasunaren egiazko izatea ta bikaintasuna andiagotu egiten dira, euren goiko itur-buruan, maitasuna dan Jainkoagan ikusten diranean (6). «Aita-gandik dator-eta aitatasun guztia bai zeruan eta bai lurrean» (7).

Ezkontza ez da alabearrak sortua edo izadiaren ezkutzuko indaritsuak egiña: Irazaillearen egintza jakintsua baiño, gizadiaren bere maitasunezko elburua betetzeko. Senar-emazteak euren nor-emotearen bidez, eurena baiño ez da-ta, izaki biak alkartu daroaz norberaren alkarregazko osotzerako, sortze-lanean Jainkoaz bear egiteko eta bizi barriak azteko.

Bateoa artutakoengan ezkontzak ba-dau, gaiñera, eskerraren ikurton ezaugarria, Kristo'ren Eleizagazko batasuna adierazten dau-ta.

9.—Argi onetan ezkon-maitasunaren zertzeladak eta betebearrak argi ta garbi agertzen dira. Ta eurotzazko eritxi beardanezkoa eukitea garrantzi andiko gauza da.

Lenen ta bein, maitasun bat da, guztiz gizatiarra, au da sentikorra ta aldi berean gogozkoa. Ez da, beraz, se-

(6) I, Joan: 4, 8.

(7) Ef.: 3, 15.

(5) AAS, 56 (1964).

naren ta sentipenaren zabaltze utsa. Baizik, borondatezko egipena da eguneroko neke-pozaldiakazi oi dana.

Onetara senar-emazteak biotz bat eta gogo bat egi-ten dira, alkarregaz giza-osotzea lortuteko.

Maitasun guztizko da, au da, bakarreango adizkideta-
sun banakoa. Bera dala-ta, senar-emazteak dana dabe er
dibana, bear ez diran gorde-gaiak edo norberekoikeri
otzak baztertuta. Bere ezkon-laguna benetan maite dau-
nak ez dau maite bakarrik argandik artzen dauanagaitik,
beragaitik baiño, norberan emoteaz aberastu daualako
pozik.

Maitasun zintzoa da, besterik nai ezkoa, eriotzaragi-
ñokoa. Olantxe pentsetan dabe senarrak eta emazteak
azkatasunez eta jakitez ezkontza-lokarria jasotzen daben
egunean: Batzutan gatxa izan arren beti egingarri dan
zintzotasuna, bikaiña ta merezi andikoa. Ez dago ukatze-
rik: gizaldietan zear senar-emazte askoren jarraibideak
argi erakusten dau zintzo-izatea ezkontzan berezkoa ta
zorion sakonaren ta iraunkorraren sustraia dala.

Ta baita ere maitasun egikorra da, senar-emazteen al-
kartzean amaitzen ez dana. Aitzitik, bizitza barriak sorta-
raziaz luzapena izaten dauana. «Ezkontzak ta ezkonduen
maitasunak bere izatez semeak sortu ta azteko garoez.
Ez bai barik, seme-alabak ezkontzaren ekarri bikaiñena
dira, senar-emazteen onerako lagungarri ez txikia».

10.—Orregaitik ezkon-maitasunak senar-emaztei eu-
ren egitekoazko kontzientzia, aitatasun jakiturizkoazkoa

alegia, eskatzen dautse. Ontan, gaur egunean, asko itz
egin da arrazoi guztiaz. Baiña, zearo argitu berra da.
Legezko ta alkarregazko dagerzkuzan ikuspegiak gogoan
artuta.

Biloji-irabiatzeentzako, aitatasun jakitezkoak auxe esan
nai dau: nundik nora eta zertarako sortuak diran jakitea.
Adimenak, bada, bizitza emon al izate ortan, bioloji-legeak
asmatzen dauz, giza-notiñaren parte diranak (9).

Senaren eta griñen indarra buruz, jakitezko aitatu-
sunak bear dan neurribidea dakar, adimenak eta naime-
nak arei geiago egin dagioen. Soin-ekonomi-sikoloji ta gi-
zarte-puntuetan zelan jokaten da jakitezko aitatasunaz?
Ara: sendi ugaria izateko erabaki zentzudun ta emonko-
rraz edo, augatik edo besteagaitik eta zillegizti legeari
menpetuta arrazoi andia danean aldi baten edo aldi osoan
geiago semerik ez eukiteko erabakiaz.

Jakitezko aitatasunak, batez ere, zillegizti-arlo benaz-
koaz, Jainkoak sortua ta kontzientzi zuzenak azaldua da
berau, geiago lotzen gaitu. Erantzukizun guztiazko aita-
tasunak auxe eskatzen dau: senar-emazteak onartu dagie-
zala euren Jainkoagazko eginberrak, euren buruakaz-
koak, sendiagazkoak, gizarteagazkoak, balio-mailla baten
barruan.

(8) Gaudium et Spes, 50.

(9) Toma Deuna: Sum. Teol., I-II, p. 94, a 2.

Bizitza emotean senar-emazteak ez dira jarei, zelan gura jokaturteko, jarrai-bideak eurak-euretara zeintzuk diran erabakiaz. Aitzitik, euren jokabidea Jainkoaren sortzerakoango asmoagaz bateratu bear dabe. Ezkontzako izatean bertan ta bere egintzetan ta Eleizak etengabe azalclutakoan dabe asmo ori agiria (10).

11.—Senar-emazteak barrukotasun garbiz batzen diran egikunok, euron bidez edatzen da giza-bizia, Batzarrek gogoratu dauan legez «garbiak eta beardiranezkoak» dira (1)). Ta ezkonduen borondateaz gairietiko ziokaitik antzu geratuko dirala ikusten ba'da be, ez dira lege-ba-koak. Euren batasuna adierazo ta sendotzeko zuzenduak dira orduantxe ere. Esperientziak darakuskunez, ezkon-egikun bakoitzetik ez dator bizi barri bat. Jainkoak bere jakituriz aldiak eta goraberak ipiñi ditu, izatez sorpena ekarteko, jaiotzak alkarr-urruntzen dabezanak. Alaz ere, Eleizak, bere betiko irakaspenak agiriko egin dauan izatezko legeak gordetzeko gizonai agintzen dautsenean zera irakasten dau: edozein ezkontzazko batzea bizitza ekarteko bear dala egin (12).

12.—Irakaspen au, askotan, Irakaslaritzak emona, ontan dago oiñarrituta: ezkon-batzearen esanai bien artean Jainkoak ipiñi ta gizonak apurtu eziñezko lokarri estuan:

(10) *Gaudium et Spes*, 50, 51.

(11) *Gaudium et Spes*, 49, 2.º

(12) *Casti Connubii*, AAS 22 (1930).

batasun-esanaia ta sortzaille-esanaia. Ain zuzen be, ezkon-batasuna, bere barru-barruko izakeraz, ezkon-lagun biak bat-bat egiten dituan artean, bizitza barriak sortzeko gai egiten ditu. Gizonaren eta emakumearen izatean bertan irarrita dagozan legeen araura. Alderdi ezinbesteko bi oneik gordeta, batasunezkoa ta sortzezkoa, ezkon-batzeak alkar ta egizko maitasunezko esangura osorik gordetzen dau eta baita ere aita izateko gizonak dauan gorengo deira zuzenduta egotea. Uste dogu, gure sasoiko gizonak batez bere, gauza dirala oiñarri onen adimen sakonezko ta gizonazko izatea ulertzeko.

13.—Bere aldi bakoitzeko egokera ta bere nai jatorrak kontuan artu barik ezkon-lagunari ezarten yakon ezkon-batzea ez da benetako maite-egipena eta orregaitik alde bat itxiten dau senar-emazteen arteko artuemonetan zillegizti zuzen-bear andi bat. Olan dala, zuzen bere buruagaz diarduanak onartuko dausku alkar-maitasunezko egipen bat, Jainkoak lege banakakin beragan ipiñi dauan egokitasuna bizia emanarazteko aurreztik ebakitzen dauana, ezkontzaren izatezko asmoaz besterakoa da ta bi-ziaren Egillearen aurkakoa. Bere esangura ta elburua eze-reztuaz doai jainkozko au erabiltea giza-emakumeen iza-teari berari ta beren lokarri barrukoena jarkitzea da. Ortik, Jainkoaren beraren asmoai eta borondateari aurre emotea da. Bestera, sortapenaren legeak gordeaz ezkon-maitasunaren erabiltea auxe ere ba-da: giza-bizitzaren epaikariak euren buruak egin barik, Egilleak erabakita-

koaren ordezkariak izatea. Osoan artuta gizonak ez dau ezelango eskubide mugabakorik bere gorputzean. Era berean ere ez dau almen sortzarazleetan, euren izatea bizia sortaraztea dan aldetik. Bizitzaren asiera Jainkoa da-ta. «Giza-bizitzak, XXIII-garren Jon'en itzez, asikeratik bertatik dakar berekin Jainko-egipen sortarazlea» (13).

14.—Ezkontzaren oiñarri kristau ta gizakoi oneik dirala-ta, bein ta barrero auxe erakutsi bearrean gara: jaiotzak neurtzeko guztiz debekatuta dago bein asitako sortzeko egipena ebagitea ta batez be, gogoz eta oldez egiñiko aur-galtzea osagarri-izenean izan arren be (14).

Bardin debekatuta dago zuzenezko ezerezpina, aldikoa naiz betikoa, bai gizonagan eta bai emakumeagan (15). Edo elburu lez edo bide lez sortapena galazoteko ipinten dan edozein era, ezkon-batzea aurretik edo egin artean edo eginda gero ortik sortu bear litzakezan izatezko ondorenetan (16).

Asmoz antzu diran ezkon-batzeak aldezteko ezin leitekez artu ontzat ez kalte gitxiagoaren arrazoa, ezta olako egipenak lengoko edo geroko egipen sortzaillekin bat dirala ta beraz zillegizti aldetik bardin dirala onak. Egia, iñoiz, zillegizti kalte txikiago bat jasan ba'da, kalte andia-

(13) Mater et Magistra: AAS, 53 (1961).

(14) Pio XII: Discorsi e Radiomessagi, VI.

(15) Casti Connubii: AAS 22 (1930).

(16) Casti Connubii: AAS 22 (1930).

goa kentzeko edo onbide andiago bateri ekiteko (17), ez da zillegia, arrazoi andienak ekarrita bere, txarra egitea ona erakarteko (18). Au da, ez da zillegia, borondatearen benetako egikun bati ezin leikio batu izatez zuzen-ez dana eta gizanortasunari duin ez yakona. Orrekin bakar baten edo sendiaren edo gizartearen ona billatzen ba'da be. Beraz, oker dagoz onetara pentsetan dabenak: ezkon-batzea, gogoz antzutua, eta origaitik barruz eta berez garbieza, sendi-bizitza ugari bat osoagaz buztartu leitekena.

15.—Gorputzaren gexoak osatzeko benetan bearrezko diran osagarribideak Eleizak ez ditu gaitzesten. Ortik sortapenerako oztopo bat aurrez ikusia sortzen ba'da, oztopo ori berez eta zuzenean augaitik edo besteagitik billatzen ez ba'da (19).

16.—Eleizaren ezkontzazko zilligizti-irakaspen oneri gaur egunean aurka botatzen dautsoe, gorago esan dogunez, (3, zenb.) giza-adimenari izadi-adimenbakoaren indar guztiak menperatzea dagokiola, ta gizonaren ona begien aurrean artuta, elburu batera zuzendutea. Batzuk itantzen dabe: gure garai onetan ez al da adimenezkoa ta zentzunezkoa jaiotzen neurtze ikasizkoa... jartzea, orregaz sendiaren bakea ta lasaitasuna lortuten ba'dira, eta

(17) AAS, 45 (1953).

(18) Erromak: 3, 8.

(19) AAS, 45 (1953).

jaiotako umeak azteko ingurune obeak? Erantzun garbia bear da emon: Eleizak beste iñork baiño geiago esaten dausku adimena jartzeko olako lanbide batean, irazaki adimenduna Jainkoagandik ain ur jartzen dabelako. Alan, be, lendik Jainkoak ipiñitako neurri-bideari begirunea erakutsiaz.

Beraz, jaiotzak bata bestetik urruntzeko benetako arrazoiak ba'dira, ezkon-lagunen soin-gogoen egokeratik sortuak, edo kanpotiko zioakaitik, orduan Eleizak irakas-ten dau zillegi dala izatearen gora-beraaldiak, sortzeko almenetan datzazanak, kontuan artzea, antzu diran aldi-etan ezkontzaz baliatzeko. Era orretara jaiotzak neurritz jartzen dira, gogoratu barri doguzan oiñarriak zapaldu barik (20).

Antzu-aldietzaz baliatzeko diñoanean eleiza ganoraz ari da. Sorpenaren aurkako bideak gaitzesten dauz barriz, azaletik garbi ta benazko diran arrazoiakaitik egin dala esan arren be. Egiaz, gauz bi onein artean alde guztizkoa dago: lenengoak senar- emazteak izatezko egokera bategaz baliatzen dira lege-barruan. Bigarreanean, izatezko ta berezko egikerak galazo egiten dabez. Bai batean eta bai bestean ezkon-lagunak gauza baten datoz bat: arrazoi txalogarriakaitik semeak itzuri bear dabezala, izango ez diralako ziurtasuna gura dabela. Baiña lenegoan ben-benaz sortzeko egoki diran aldietan ezkontza-batzeari uko egiten

(20) Pio XII: AAS, 43 (1951).

dautsoe, zio zuzenakaitik sortzea komenigarri ez danean, eta gero sortu ez egiteko aldia datorrenean artara jartzen dira alkarri itzala ta maitea agertzeko ta alkarrenganako zintzotasuna gordetzeko. Olan jokatuaz, erakusten dabe benetako ta guztiz garbi dan maitasuna.

17.—Gizon zuzenak gai onetzako Eleizaren irakaspe-
naren sendoa ikusiko dabe, jaiotzen neurtze ikasizkoaren ondorenak aztertzen ba'dabez. Lenengo ta bein azter begie senar-emazteen zintzo- ezari zabaltzen yakozan bideak eta ortik letorken garbitasun-beratzea. Ez da jakinduri andia bear izaten giza-makaltasuna ezagutzeko eta ikusteko gizonak, batez be gazteak, orretan ain aul diranak, lagunta-
suna bear dabela moral-zintzotasunari eusteko ta ez yake emon bear edozein bide errez ari iges egiteko. Bildur izatekoa da bere bai, sortze-aurkako oikunetara oitu ez-
kero, gizonak emazteari lotsa galduko dautsola. Ta bere soin-
gogoen egokera onari baiño begiratu gabe, bere atsegiñerako gauza lez bakarrik artuko ete dauan ta ez maite ta dedutan dauan laguna.

Ta zer esanik ez. Gai ontaz ajolakabe diran agintarien eskuetan izkillu arriskuz betea jarriko litzake. Ezkon-lagunai sendi-buruaste baterako zillegitizat emoten dana zergaitik ez legerriko aginteriei lagunarteko goraberak zuritzeko? Nok galazo agintariai eurak egokientzat daben sortzearen aurkako bidea erabiltea edo erabilten beartzea bera be, bearrezkotzat artzen ba'dabe? Era orretara gi-

zonak, Jainko-legea betetzeko dagozan eragozpenak, bakarrekoak, sendikoak, edo gizartekoak, batera baztertzeko, erri-agintariai itxiko leuskioe norberan ezkontza-bizitzako ezkutu-ekzutugarriena.

Origaitik, bizia sortaraztea giza-naikerietan itxi nai ez ba'da, nai ta ez neurri apurtu ezifnezko batzuk artu bear dira, gizonak bere soiña ta beronen egiteak edozelan erabilli ez dagizan. Neurriok ezin leikez apurtu ifungo gizoñak, ez bakarrean artuta ezta aginteduna be. Olako neurriok ezin leitekez jarri bere osotasunean giza-soiñari ta bere egipenai zor yaken itzala kontuan artu barik. Len gogoratutako oiñarrien araura ta «osotasunaren» oiñarria zuzen ta artez ulertuta. Ortaz gure aurreko amabigarren Pio ederki itz egifia da (21).

18.—Irakaspenok ez dira, agian, danok errezto onartuak: gaurko zabalkunde-bideak andiagotuta, abots eta dei asko dabilz Eleizarenaren aurka. Egia esateko, Eleiza ez da arritzen bere Sortzaille jainkotiara lez, «oztopogarri ba'da (22). Alan be ez dautso itxiten apalki esateari zillegizti-legea, izatezkoa ta Barri Onarena or dagola sendoki. Ez dira legeok Eleizak egifiak ta auxe bakarrik egin leike berak onetan: gordetzaille ta adierazle izan. Ta ez epaille. Ortaz, bere barne-izatez giza-onari jarkitzen yakona ezin dau legezkotu.

(21) AAS, 45 (1953).

(22) Luk.: 2, 34.

Ezkontzako morala bere osotasunean aldeztutean, Eleizak ba-daki benetan gizakoia dan giza-lantzeari laguntzen dautsola. Ortara bultzatzen dau gizona: bere erantzukizuna ez dagiala itxi, teknika-bideai makurtzearren. Onegaz ezkon-lagunen duintasunaren alde dagi. Bere irak aspen ta Salbagillearen jarraibidearekiko zintzo izanaz, gizonen adizkide zintzo ta ben-benetakoa agertzen da. Gizonai laguntzeko gertu dago, lur-ibilbidetik «Jainko bizia- ren, gizon guztien Aitaren bizian semeak lez artukizun izan dagien» (23).

19.—Erri guztien ama ta irakaslea dan Eleizaren ar- dura ta pentsakearen adierazpen zeatza ez litzake izango gure itza, ezkontzarekiko Jainko-legea betetzen gizon guz- tiak eragin da gero, jaiotzen neurtze zintzo baten lagun- duko ez ba'leutse. Gaur egunean sendiak eta erriak dara- biltzan egokera zailletan ere bai. Eleizak ezin dau gizonen- tzako artu Eroslearena ez dan jokabiderik. Ba-daki giza- makaltasunaren barri, gizozteak erruki ditu, pekatariak beso-zabalik artzen dauz, baiña ezin dau itxi irakatsi barik lege bat: bere jatorrizko egira, Goteunak zuzenduta, daroan giza-bizitzarena, alegia (24).

20.—Jaiotzen neurtzean Eleizaren irakaspenean, Jainko legea berak aldarrikatzen dau-ta, askoren begietan gatxa

(23) Populorum Progressio, 21.

(24) Erromak.: 8.

agertuko da edo ta egiteko ezíña. Bai, egi ongarri guztiak lez, alegin gogorra eskatzen dau, ta sendi-gizarte-notifien aldetik neke andiak.

Are geiago, ezingo da egizkotu, Jainkoaren laguntza barik, berak gizonen borondate ona sendotzen ta jagoten dau-ta. Alabaiña, serioski gogoetan diarduan edonoren-tzako, olako alegin-nekeak gizona bikaindu egiten dabe ta giza-lagunartea ondu.

21.—Jaiotzen neurtze garbiak auxe eskatzen dau: senar-emazteengandik: bizi-az eta sendiaz eritxi ta uste oso egokiak euki dagiezan. Baita norberaren menperatze osoa bere. Sena adimen ta naimen azkez menperatzeak, ez bai barik, askesis bat ekarten dau berekin ezkontzako biotz-agerpenak zuzen danagaz batera daitezzen eta batez bere noizean beingo txaututasuna gordetzeko. Ilduratze au, senar-emazteen garbitasunari dagokiona, kaltegarri izan barik, giza balio goralgarrí damotso ezkon-maitasunari. Etengabeko alegiña bear da orretarako. Alaz ere, bere eragin ongarria dala-ta, ezkon-lagunak beren nortasuna guztiz agertzen dabe, gogo-aberastasunakaz. Sendi-bizitzari narotasun ta pake-arnariak dakartsoez. Eta beste auzi batzuetarako erreztasuna sortzen dabe. Zelan, baiña? Beste ezkon-lagunaganako begirunea gordeaz, norberekoikeria garaituaz, egizko maitasunaren etsaia da-ta, ta euren erantzukizun-sena gero ta sustraiagotuaz. Olantxe gurasoak seme-alabak azitzeko sakontasun ta eragikortasun andiago

lortzen dabez. Umeak eta gazteak giza-balioak gero ta obe-toago dakustez ta euren gogo ta sentipen-almenetan gero ta baketsuago, gero ta bateratsuago aziko dira.

22.—Azitzaileak eta giza-lagunartearen on orokorra-ren gauzetan zer ikusia daben guztiak dei eiten dautsegu, garbitasuna sortzeko giro egokia sortu dagien, Azkatasu-nak azke-zalekeriari geiago egin dagion, zillegizti-mailla bear eta zor yakon lotsaz gorde daiten. Gaurko gizarte-artuemonetan sentipenak sututzeko, oiturak galtzeko, edo-zein zatarkeri-agerpen, eta ikuskizun lizun dan guztiak guztien gaitzespena bear dau, zibilizazioaren aurrerape-nean ardurarik ba'dabe ta giza-gogoaren onbide gorengoak aldezteko ajolarik ba'dabe. Alper da olako zantarkerien-tzako aitzekia billatzea, antze edo erti azalpenak dirala-ta (25). Edo ta gai ontan erri-agintariak lasai-lasai diardue-la-ta.

23.—Oroen onaren erantzukizun eurak dabe geien bat eta oitura onak gordetzeko eskua dabe-ta agintariei esa-ten dautsegu: ez itxi zuen errien garbitasuna galtzen, ez itxi lenengo bizi-mailla dan sendiñan izate ta Jainko-le-gearen aurkako egipenak sartu daitezzen. Erri-batzearen goraberak garbitzeko beste bide bat dozue: sendiarekiko legedi aukerakoa, erriak jakintsuki ezitzea, zillegizti-legea

(25) Inter Mirifica, 6-7; Batik. II.

ta erritarren azkatasuna onartzen eta gordetzen dauzana. Uzi onetan ba-dakigu agintariak eragozpen andiak dabezala. Baitik bat asi-berri diran errietan. Oien legezko axanpak kontuan artuta gure Populorum Progressio atara genduan. Ta gure aurreko XXIII-garren Jon'egaz esaten ari gara: «Eragozpenok ez dira desegiten gizonaren duin ez diran bideakaz, gizonagazko eta bizitzagazko azalpen gaikor utsagaz asmatuak dira-ta. Egizko urtepeidea ekonomi-aurrerapenean eta gizartekoarenean datza, giza-balio benetakoak bakarka ta giza-aldraka errespetatzen ba'dabez» (26). Era berean ezin leiteke egin erantzule, zuzengabe andi gabe gure Jainkoaren ardurapena, aginte-zurtasun-ezetik letorkena, erri baten ta bere seme guztien bizi-mailla jasoteko gizarte-zuzentasun eskasetik, norberekeri orobatzetik edota bearrezko diran nekeak eta oiñazeak jasateko ajolagabekeritik (27). Erantzukizun daben agintari guztiak, batzuk asi dira zorionez, biztu dagiezala bi-ziro alegin guztiak eta ekin dagioela munduko sendiaren artean alkar-laguntasunari. Naziño-arteko erakunde andiak bide-arlo zabala dabe orretan.

24.—Jakintsuak aolkatu nai ditugu, «ezkontzaren, sendiaren eta kontzientzi-bakearen onetan lan andia egin leikie, euren ikasketak batuaz, giza-sortzearen neurtze garbi baterako egokera ugari-lagungarriak argitzen saiatzen

(26) Mater et Magistra: AAS, 53 (1961).

(27) Populorum Progressio, 48-55.

ba'dira» (28). Amabigarren Pio'ren opaz, jakintzak emon begi oiñarri naiko sendo bat, jaiotzen neurtzerako, izatezko gora-beratan oiña artuta (29). Era orretan jakintsuak eta batez bere katolikuak euren egintzekin probatuko dabe, Eleizak dirakasten moduan «ezin egon leitekela alkar-eziña biziaraztea neurtzen daben jainkolegeen eta benetako ezkon-maitasuna sorrarazten dabenen artean (30).

25.—Gure semeakaz ari gara orain, batez bere Jainkoak bera serbitzen ezkontzara deitzen dauzanakaz. Eleizak Jainko-legearen itzuri-eziñezko irakaspena emonaz gañera, gaizkakundea iragarri eta esker-bideak ikurtonakin zabaltzen dauz, grazi onek egiten baitau gizona sor-kari barria, maitasunean eta egizko azkatasunean bere Egille ta Salbagilleari jarraitzen dautson ta Kristo'ren buz-tarria bigun arkitzen dauana (31).

Senar-emazte kristauak, ba, aren abotsari zintzo jarraituki, gogoratu begie bataioan asitako euren kristau-deia ezkontzako ikurtonaz zeaztu ta sendotu dala. Orre-gaitik senar-emazteak lagunduta eta donetuta bezelaxe dagoz dagokiozan betebearrak egiteko, euren deia osotasunerañño betetzeko ta eurai dagokien lekukotasuna

(28) Gaudium et Spes, 52.

(29) AAS, 43 (1951).

(30) Gaudium et Spes, 51.

(31) Math.: 11, 30.

emoteko mundutarren aurrean (32). Euroi emon dautse Jaungoikoak-eta gizonen aurrean agiriko egitea legearen gozotasuna ta donetasuna. Lege onek, bada, senar-emazteen alkar-maitasuna biziaren egille dan Jainko-maitasunagaz bat egiten dau. Kristau ezkonduen bizitzak gauza zaillak ba-ditu askotan, oso zaillak. Ez doguz ezkutau gura. Beste edonorentzat lez, eurentzako be «bizitzara daroan bidea medarra ta atea estua da» (33). Bizitzaldi onetan itxaropenak euren bidea argitu bear dau, zurtasunez biziten aleginduten diran bitartean, orainaldian... zuzentasunez ta oneraspenez (34). Mundu onetakoa itxura igeskorra baiño ez da-ta (35).

Sifñismenak indartuta, egin begiez ezkonduak bearrezko alegiñak, itxaropenak berotuak, «ez baitau atzipetuten, gure biotzetan emon yakun Goteunaz batera Jainko-maitasuna ixuria baita» (36). Ekar begie sarritan Jainkolaguntza otoitz egiñaz. Batez ere, joan daitezala esker eta maitasun-iturria dan eukaristiagana. Eta pekatuan euren buruak ikusi arren be, ez beitez illundu, jo begie iraunkortasun apalez Jaungoiko errukitsuagana Autortzaren ikurtonean. Olantxe bidaliak agertutako ezkonbizitzaren betetasuna lortuko dabe: «Senarrak, maita egizuez

(32) Bat. II: Lumen Gentium, 35.

(33) Math.: 7, 14; Ebert.: 12-11.

(34) Tit.: 2, 12.

(35) I, Korint.: 7, 31.

(36) Erromak.: 5, 5.

zuen emazteak Kristo'k bere Eleiza maite izan dauan legez... Senarrak euren emazteak gorputza legez maitatu bear dabez: Ala emaztea maitatzea ez al da norberan burua maitatzea? Iñork ez dau iñoiz bere aragia gorrotatu, elikatu ta zaindu baiño, Kristo'k Eleiza lez... Andia da ezkutuki au, Kristo'z eta Eleizaz, gero. Zuek, barriz, ba-koitzak maita begi bere emaztea bere burua lez eta emazteak erakutsi begio lotsa bere senarrari» (37).

26.—Jainko-legeari zintzotasuna gogotsuki erakutsiz ekarri andienetariko bat auxe da: ezkon-lagunak askotan besteai euren esperientzia agertu naia. Era orretara apostolutza-era barria agertzen da erritarren goideiaren esparruan. Senar-emazteak eurak beste senar-emazte batzuen gidariak billakatzen dira. Apostolutza-era askoren artean auxe da, ezbai barik, gaur egunerako egokienetariko bat (38).

27.—Osagilleak eta osaki-zaleak anditzat ditugu, euren lanbidea betetzean kristau-deiaren gorengo eskakizunak barru-barruan sentitzen dabez-eta, edozein giza-irabaziren gaiñetik. Saiatu beitez, bada, etengabe sifñismenak eta zentzunak idarokitako bideak ipinten eta euren inguruan bi-deontzako uste sendoa ta begirune osoa erakarten. Artu

(37) Epes.: 5, 25, 28-29, 32-33.

(38) Batik. II: Apostolicam Actuositatem, 11.

begie euren lanbideko betebearra lez, gai ontazko jakintza lortutea, aolkua eskatzen dautsen senar-emazteai iritzizentzunezkoak eta arau zuzenak emoteko, orixe itxaroten dabe eurakandik arrazoi andiz-eta.

28.—Abade seme maiteok, goi-deiez gizonen eta sendien aolkulari ta gogo-zuzendari zarienok, zuekin dogu orain uste andiagaz: zuen beiñeneko eginbearra, batez bere zillegiztia irakasten ba'dozue, Eleizaren ezkontzazko irakaspena azaltzea da, aikomaikoetan ibilli barik. Zuen len-egintzetan erakutsi barruz eta azalez Eleizaren irakaslaritzari men egiten dautsozuela. Menpetasun ori bearbearrezko dozue esandakoakaitik ez ezik, Goteunaren argiagaitik be, Eleiz-artzaiñak bereziki argitzen baitauz egia agertzeko (39). Kontzientzien pakerako eta erriaren batasunerako garrantzi andikoa da, dakizuenez, zillegizti ta siñisbearrekoetan danak Eleizaren irakaslaritzari men egitea eta era bardiñez itz egitea. Beraz, gogo osoaz barrizatzen dogu Paul Bidaliaren arako dei larri ura: «Arren, anaiak, Jesukristo gure Jaunaren izenagaitik, egizue danok itz era batera, ez bedi agertu zuen artean bereizitasunik. Aitzitik, zabiltze batera pentsakeran eta sentitzean» (40).

Kristo'ren irakaspena ezertan ez gitxiestea, arimengana maitasun ederrenetarikoa da. Eroapenez eta onta-

(39) Lumen Gentium, 25.

(40) I, Kor.: 1, 10.

sunez, baiña. Jesukristo'k berak onetan ikasbidea emon euskun, gizonakaz ibiltean. Epaitzeko ez, gaizkatzeko baiño etorria (41). Gaiztakeriagaz bigundu barik, gaizkilleai errukia izan eutsen.

Gatx-artean senar-emazteak aurkitu dagiela beti abadearen itz-egintzetan Eroslearen maitasunaren oiartzuna.

Itz egizue zabal, uste osoaz, Goteunak Irakaslaritza argitzen dau-ta, irakasbearra agertzean eta sifistedunen biotzak barrutik argitzen dauz, onartzeko bultzatuaz. Irakatsi senar-emazteai bearreko dan otoitz-bidea, Eukaristi ta Aitor-ikurtonak sarri ta bizi artu dagiezala.

Ta bein bere ez daitezala lur jota gelditu makal agiri ba'dira batean edo bestean.

Artzain anai maite ta agurgarriak, Zuekin dogu bereziki gure ardua Jainko-erriagana. Zuekana doa gure gogai lotsazkoa eta maitezkoa idazki au amaitutean. Danoi egiten dautsegu dei bizia. Egizue lana abadeen gidari lez, laguntzailleak dituzue-ta, eta eliztarrekin ere bai, sutsu ta gogotsu ezkontza-bidea gorde ta donetu daiten. Bere kristau eta gizatiar betetasunean bizia izan daiten. Egikizun au gure denporetako auzi larrirenetariko bat lez artu bear dozue. Onek ekarri bear dau berekin, dakizuenez, gizarlo guztietan batera erabillitako artzain-lana. Ekonomikultur eta gizarte-sailletan. Giza-mail guzti oneik batera obetuaz bakarrik egin leiteke jasangarri eta are geiago

(41) Jo.: 3, 17.

zoritsuago ta errezago sendi-barruan guraso-semeen bizitza. Gizabatzaren alkar-bizitza baketsuago ta anaikorra-go. Jaungoikoaren munduagazko erabagiak ondo artuaz, alegia.

31.—Anai agurgarriak, seme maite-maiteak eta borondate oneko gizon guztiak: aziketa-lana ederra da, aurre-rapen eta maitasunarena ere bai. Ortara dei egiten dautsuegu, Eleizaren irakaspenetan oiñarrituta. Irakaspen orren gordetzaille ta adierazlea, Done Pedro'ren ondorengo da bere Artzain-anaiakaz batera. Munduarentzat eta Eleizarentzat lan andia, benetan. Gizonak ezin leike idoro zain ta muin billa dabillen zoriona, Jainkoak izatean jarritako legeak asmoz eta biotz beroz gorde ezik. Zuentzako eta senar-emazteentzako, lan onetarako, santutasun eta errukiaren Jainkoaren esker ugariak eskatzen doguz. Orren sendogarri ta ezaugarritzat, gure Artzain-onespena zabaltzen dautsuegu. Erroma'n Jondone Petri'renean, Done Yagoba bidaliaren jai-egunean, 1968-ko garagarrillaren 25-garrenean, seigarrenez Doipuru gareala.

VI-GARREN PAUL AITA SANTUA

ERABILITAKO GAIAK

<u>izenak</u>	<u>zenbakiak</u>
agintariak eta oitura garbiak	23
andra-gizonak	25
antxu-aldiak	16
antxutasuna	11
antxutasuna ta aur-galtzea	14
aurre-rapenak	2
auzi barriak	3
Batikano II	7
bizia emotea ta Jainko-borondatea	10
erri-agintariak	17
erri-aztea	2
ezkon-bizitzaren eredia	21
ezkon-maitasuna	9
ezkontza	8
izatezko legea	4-18
kalte txikiagoarena	14
Populorum Progressio	23
semeak aztea	9
sena ta grifiak	10
XXIII-garren Jon	5

AGERTUTAKO IDAZTIAK:

1. Phedro'ren Alegiak I
2. Martial'en Ziri-Bertsoak I
3. Phedro'ren Alegiak II
4. Fatima'ko Ama Birjifia ta Umeak
5. Euskal Iztegi Laburra (A)
6. Esopo'ren Alegiak I
7. Agustin Deunaren Eskutitzak I
8. Gurutz - Bidea
9. Phedro'ren Alegiak III
10. Batikano II Batzar-Agiriak (Eleiza ta kristau ez diran beste erlijioak)
11. Perrault'en Ipuñiak (2-garren argitalpena irarteko)
12. Batikano II Batzar - Agiriak (Gizarte artuemonetako bideak)
13. Apuntes de Vascuence (Segundo curso)
14. Lope de Vega - Bakar-Autuak
15. Liturji - Goratzarreak
16. Jaungoikoaren Agerpena (Batikano - Agiriak)
17. Maitale Galdua (olerkiak)
18. Lati-izkuntzaren joskera (Orixe)
19. Euskal Iztegi Laburra (B - D)
20. Kristau - Aziera (Batikano Agiriak)
21. Euskal Iztegi Laburra (E - F)
22. Basoko Loreak (olerkiak)
23. Lo ta Amets (olerkiak)
24. Apuntes de Vascuence (Primer Curso)
25. Katalunya'ko Olerkariak
26. Bidaztien Aterpea
27. Apuntes de Vascuence (Tercer Curso)
28. Euskal Iztegi Laburra (G - I)
29. Galburutan (Gallastegi'tar Kauldi)
30. Euskerazko Meza (Intxausti'tar Artur)
31. Humanae Vitae